

*Ermuko Ateneo Libertarioa*

# “Guk erabakiko dugu zer izango den Ateneoa”



**Ateneo Libertarioko kideek otsailaren 20an egin zuten lehenengo bilera irekia udal liburutegian. Ordutik hona ostegunero elkartzen dira arratsaldeko 7:00etan bertan. Ateneo Libertarioaren helburu nagusia, eztabaidarako eta kultura sorrerarako gune propioa duen espazio fisikoa lortzea da. Drogeteniturrrik sortzen ari den Ermuko Ateneo Libertarioaren asmo eta helburuen inguruko informazioa bildu du taldearekin izandako elkarrizketan.**

**-Zergatik eta nola sortu zen Ateneo Libertarioa eratzeko ideia?**


A.L: Vitamina taldearen inguruan biltzen ginenok Ateneo Libertarioa sortzeko gogoia genuen, mugimendu libertario anarkista zabaltzeko. Bazegoen jendea horretarako prest eta bilera ireki baterako deialdia egitea erabaki genuen jende gehiagorengana heltzeko eta hortik aurrera guztion artean erabakiak hartuz, lanean hasteko.

**- Zein da egitasmo honen helburua?**

A.L: Kultura ofizial eta ofizialista ez den kultura zabaltzea. Kulturatik hasi eta gure inguruan gertatzen diren gauzei buruzko beste ikuspegi bat, ikuspegi antagonista bat eskaintzea. Era berean, ahalik eta jende gehienarengana hedatzea. Horretarako kalera irten behar da eta deialdia egin.


**- Zer da Ateneo bat?**

A.L: Ateneoa funtsean guk erabakiko dugu zer izango den.



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean



BAR



**MUGA**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA



Berez eta tradizionalki, kulturaren zabalkunderako zentrua izan da. Historian izan zen garai bat, kultura erakunde ofizialetatik ez zena heltzen herrira eta Ateneoak herriak berak antolatzen zeukan premiarengatik eta herriari kultura emateko sortu ziren.

**- Zuek zer nahi duzue Ateneoa izatea?**

A.L: Bizitza eta kultura ikusteko era ezberdinak sartu eta artikulatu daitezkeen askatasunezko espazioa. Ateneoak beti kultur guneekin lotu dira, bertan sortzen den kultura beste arlo eta espazioetan sortzen den kultura ezberdinaren aurrean.

**- Maiatzaren 5etik 13ra, Ermuko Ateneo Libertarioaren 1. Jardunaldi kulturalak antolatu zenituzten. Nolako da zuen balorazioa?**

A.L: Balorazioa positiboa izan da. Egon diren hitzaldi eta eztabaidetan jende askok hartu du parte era zuzenean, iritziak emanez. Hitzaldi gehienetan liburutegiko aretoa bete egin da, 40-45 lagun batzbestek izan dira antolatu ditugun ekitaldietan.

**- Eneko Landaburu, Montxo Alpuente besteak beste, izan dira hitzaldietan.**

A.L: Bai. Gure artean, izena dute, baina agian gune ofizialtan onarpenik ez duen jendea eta euren eguneroko lanari esker, gizartearen zati baten esker ona irabazi dute. Hain zuzen ere, hori da gure helburuetako bat, telebista eta egunkarietako ikuspegi ezberdina eskaintzen duen jendea ekartzen jarraitzea. Zerbitu esateko daukan jendea eta guretzat baliagarria izan dadila euren ekarpena, euren ikuspegia hobeto ulertzeko.

**- 1. Jardunaldien balorazioa positiboa izanda, aurrerantzean jardunaldiekin jarraitzeko asmoa duzue?**

A.L: Argi daukaguna da, egin nahi dugula. Izan ere, ezer ez egiteko elkarzteak ez dauka zentzu handirik eta asmoa ahalik eta gauza gehien egitea da. Jardunaldi bezala ez bada ere, puntualki aterako diren ekintzak egitea espero dugu.

**- Zeintzuk dira zuen egitasmoak epe labur eta luzera begira?**

A.L: Egia esan oraindik taldea sortzen ari garela esan daitezke eta ez dugu gehiegi pentsatu zeintzuk diren gure egitasmoak epe labur eta luzera begira. Izan ere, espazio fisikoa errealitate bihurtzeko zain gaude. Momentu honetan gure lehenasuna, lokal bat lortzea da nahiz eta kontua nahiko zaila den.

**- Astero biltzen zarete. Zer egiten duzue bilera horietan?**

A.L: Oraindik ez dugu gure artean eztabaidatzeko astirik izan. Batez ere, gauzak antolatzen ibili gara eta lokalaren kontua aztertzen. Epe laburrera begira, inguruko 20 musika talde ezber-



Maiatzaren antolatutako lehenengo jardunaldietako hitzaldia

dinen KDa egiteko asmoa dago. Hilebete honetan izan den Inmigratioari buruzko sentsibilizazio kanpaina izan zen kultura-artearen jaietan umeen jolasak antolatu genituen. Bestalde, ekainaren 27tik 29ra Aragoiko Pirinioan dagoen Ruesta herrira prestatu dugu irteera. Han hitzaldiak, eztabaidak, txangoak, buztin bainuak eta gau festak izango dira. Astero biltzen gara eta momentuz gauzak atera ahala prestatzen ditugu, beti ere jendearen erantzunaren arabera. Guri interesgarriak iruditzen zaizkigun ekintzak prestatzen jarraituko dugu, jendearen erantzuna ona bada. Kontua da oraindik taldea berez sortzen ari dela, talde heterogeneoa da eta elkar ezagutzen ari gara. Hemendik dei egiten diogu interesatuta dagoen edonori gure bileretan parte har dezan eta baita antolatzen ditugun ekintzetan ere.

**- Nola finantzatzen da taldea?**

A.L: Autogestioa da une honetan finantza bidea. Biltzen garenek hileroko diru kopuru bat jartzen dugu eta horrela ez gaude ez erakunde ofizial ezta udalen menpe ere edozer gauza antolatu nahi dugunean, nahiz kultura arloan nahiz lokala lortzerako orduan. Bestalde errifa bat atera genuen dirua biltzeko.

**- Beraz ez duzue dirulaguntzarik eskatzeko asmorik?**

Printzipioz ez. Hala ere, gaia oraindik ez da atera eta irtezen denean eztabaidatuko da eta orduan erabakiko da.

Alazne Aiestaran

**URRETA**

- × Etxea
- × Tresneria
- × Brikolaria
- × Zidolak
- × Giltzak
- × Zerrailgintza
- × Kit Hartzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

• SALMENTAK  
• IRAKASKUNTZA  
• AHOLKULARITZA

**ENTER**  
**INFORMÁTICA**

VI Centenario 7, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**DROGETENITURRI**  
**EUSKAL BIRUSA**

943 17 93 50

NIK EGONDUZ

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

**ELEKTRIZITATEA**  
**ZUBIAURRE**  
ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61  
48260 ERMUA